



## ZISTOSKOPIA

### Zer da proba hau?

Zunda bat (zistoskopia) sartzen da uretratik, gernu-maskuriaren eta uretraren barrualdea ikusi ahal izateko. Aldez aurretik, gel anestesiko bat ezartzen da, minik ez izateko.

### Kontuan izan beharrekoak:

Alergiarik edo koagulazioaren alteraziorik badaukazu, jakinarazi egin behar diguzu.

### Zer egin behar dut probaren aurretik?

Ez da beharrezkoa baraurik etortzea.

Txiza egin behar duzu probaren aurretik.

### Nola egingo didate proba?

Erizainak gel analgesiko lokal bat ezarriko dizu uretran zehar.

Medikuak zunda bat sartuko dizu meatutik zehar, eta maskuria ikusi ahal izateko, maskuria bera likidoz beteko dizu; baliteke txiza egiteko gogoia sentitzea.

Proba EZ DA MINGARRIA. Deserosoa gerta liteke.

Probak 10-15 minutu inguru irauten du.

Proba amaitutakoan, medikuak zurekin komentatuko ditu emaitzak.

### Zer egin behar dut probaren ondoren?

Betiko bizimodua egin dezakezu.

Ur asko edan behar duzu proba egin ondoren, egun osoan.

### Non egingo didate proba?

ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEKO Kanpo-kontsulten eraikinean, 7. solairua - Urologiako Zerbitzua